



## COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

### DATOS

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE  / OFICIAL

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA

### ACTIVIDAD

- Duración: **60 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **todas** las tareas.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

**PUNTUACIÓN TOTAL: ..... /20**



## HOJA DE RESPUESTAS

**TAREA 1 – *Dena dago lotura.***

**Angel Erroren testu honetan hainbat hitz kendu ditugu. Bete itzazu hutsuneak  
beheko hitzekin. Bi sobera daude.**

**12 item x 0,5**

**..... /6 puntu.**

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
I												
√												



<b>TAREA 2 –<i>Bizi Txarran</i> asko ikasi dut gorputzarekin lan egiten. Andrea Morari Berria egunkarian egindako elkarrizketa irakurriko duzu. Parekatu galderak eta erantzunak. Erantzun bat sobera dago. 7 item x 1 puntu</b>	<b>..... /7 puntu.</b>
--	------------------------

0	1	2	3	4	5	6	7
I							
√							



**TAREA 3 – Gutun azal baten garrantzia.**

Elizegiren artikulua irakurri ondoren erantzun beheko galderak.

Aukera bakarra da zuzena.

**7 item x 1 puntu**

**..... /7 puntu.**

0.- AEBetako hauteskundeetan...

- a) Iruzurra eman da zalantzarik gabe.
- b) Posta bidez jasotako botoak inoiz baino gehiago izan dira.**
- c) Trumpen aurka bozkatu dute ia guztiek.

1.- Aurtengo hauteskundeetan:

- a) Erdialdeko estatu gehienak ez dute aukerarik ematen.
- b) Estatu Batuar orok postaz bozkatzeko aukera izango du.
- c) Posta bidez bozkatzeko arrazoiren bat izan behar da hegoaldean.

2.- Nebraskan:

- a) 10000 biztanle baino gehiagoko herriek jasoko dituzte boto-paperak.
- b) Azaroaren 3rako eskatu duen orok jasoko ditu boto-paperak.
- c) Herri txikietan postaz jasoko dituzte boto-paperak.

3.- Posta bidezko botoetan:

- a) Errazagoa da tranpa egitea.
- b) Ez da batere iruzurrik izaten.
- c) Iruzur sistematikoak ematen dira.

4.- AEBetan botoa eman ahal izateko...

- a) Hainbat txartel erabiltzen dira identifikatzeko.
- b) Herritar gutxi batzuk ez dute identifikatzeko txartelik.
- c) Nortasun Agiri Nazionala baino ez da erabiltzen.

5.- Georgiako herritar gehienek:

- a) Ez dute arazorik botoa emateko.
- b) Gutxiengo etnikoetako kideak dira.
- c) Salaketa jartzen dute botoa atzera botatzen dietelako.

6.- Posta bidezko botoak:

- a) Adituak Demokraten aldera joko dutelakoan daude.
- b) Badirudi Errepublikanoen aldekoa izango dela nagusiki.
- c) Demokraten eta Errepublikanoen artean berdin banatuko dira.

7.- Hauteskundeen emaitzak/ek:

- a) Ez dituzte posta bidezko botoak baldintzatuko.
- b) Ez dute inolako istilurik sortuko.
- c) Trumpek ez du baieztatu onartuko dituenik.

0	1	2	3	4	5	6	7
B							
√							

# DENA DAGO LOTUTA

BERRIA. Angel Erro  
2020ko urriak 20

Asteburuak Boliviako herriak ...**0**..... estatu kolpeari eman dion erantzunaren ...**1**..... ona ekarri digu. Demokrasiaren aldarriaren ...**2**..... ezkutatutakoak egotzi ditu, zalantzarik balego, demokrasiaren ...**3**..... zuzenak: bozek. Ez da beti gertatzen, baina ederra da ikusteko ...**4**..... dagoen aldi urrietan. Egunotan egongo da Bolivian hauteskundeak (hain azkar) deitzearen erabakiaz ...**5**..... denik. Galdera da Boliviako eskuinak beste estatu kolpe bat prestatuko duen ala ...**6**..... duen hautestontzien ahotsa. Boliviako eskuinak edo, agian zehaztu beharko genuke, hartaz baliatu den nazioarteko oligarkiak. Pentsa genezake ...**7**..... geldituko zirela ahalkegabe jokaldia errepikatzeko ausardia balute. Baina ez zen lehen aldia ere izango. Dena den, egon ...**8**..... helburu bera lortzeko bestelako bideak, anbiguoagoak, gordeagoak, hori bai, ...**9**..... Laster egiaztatuko dugu. Bitartean, Boliviako litio erreserbak bereganatzearen ametsa ...**10**..... ikusten ari den Elon Musk bezalakoek haserre ezin disimulatutakoa erakutsi dute ...**11**....., beste estatu kolpe bat babestearen ...**12**..... eta guzti. Teslaren akzioak jaitsi dira berehala, eta ez da, noski, jabearen adierazpen kolpistek merkatuetan sumindura piztu dutelako.

- A. aurrean
- B. atzean
- C. badaude
- D. berri
- E. dagoeneko

- F. damutuko
- G. denetik
- H. garestiagoak
- I. iazko**
- J. jardun

- K. mehatxua
- L. nabarmenegi
- M. onartuko
- N. parada
- O. urruntzen

# BIZI TXARRA-n ASKO IKASI DUT GORPUTZAREKIN LAN EGITEN

Andrea Morak aktoreak Alpharen pertsonaia jokatu du 'Bizi txarra' websailean. «Makarra bat» da Alpha, baina lagunekiko kezka azaltzen du. «Karga psikologikoa» duten pertsonaiak ditu gogoko.

Urtzi Urkizu  
BERRIA 2020-11-5 (Moldatua)

## 0. Urrian Seriesland jaialdian estreinatu zuten Bizi txarra euskarazko websaila. Zer sentitu duzu fikzio hori ikustean?

1. Akziozko zenbait eszena grabatu zenituzten. Gustura?
2. Askatasun handia ikusi duzu sortzaileen aldetik?
3. Bizi txarra-ko zure pertsonaia Alpha da. Kikiltzen ez diren horietako bat, ezta?
4. Zure txanda websaila bestelakoa zen, beldurrezkoa. Nolako esperientzia izan zen hura?
5. Gero eta websail gehiago ari dira egiten euskaraz. Beharrezkoak dira, ezta?
6. Iaz Golazen telesailen parte hartu zenuen. Lanak ez du zer ikusirik websailekoekin, ezta?
7. Zer generotako fikzioan gustatuko litzaizuke lan egitea?

## ERANTZUNAK

- A. Bai, gero eta gehiago daude. Kontuan izan behar da websail hauetako gehienak gazteei zuzenduak direla. Euskara bultzatzeko modu bat da.
- B. Bai, orain arte ez nuen akziozko generoa landu. Kolpeak ematen eta indarkeriazko egoeratan jarri gintuzten. Akziozko generoan energia handia jarri behar duzu. Asko ikasi nuen, adibidez, gorputzarekin lan egiten.
- C. Bai, Zure txanda-n zuzendari berdinekin lanean hasi nintzenean nabaritu nuen askatasun hori. Bizi txarra-n, nire pertsonaiak zer nahi zuten azaldu zidaten, baina aktoreok proposamenak egiteko aukera izan genuen.
- D. Drama eta tragedia asko gustatzen zaizkit. Eroso nago genero horretan; karga psikologikoa indartsua duten pertsonaiak egitea gustatzen zait.
- E. Dramaturgia ikasi nahiko nuke, antzezlanak idaztea oso gogoko baitut.
- F. Gidoiaren analisi bat eginez joan nintzen pertsonaia sortzen. Makarra bat da, baina kezka du lagunekiko, eta dirua lortzeko moduz kezkatuta bizi da.
- G. Oraindik ez nituen ezagutzen A Film to Kill For ekoiztetxeak, eta ez nekien zer topatuko nuen. Grabazioetan, gero eta gusturago sentitu nintzen. Nire pertsonaiak kalamua erretzen zuen, eta erretzen denean gorputzak zer sentazio izaten dituen landu nuen.
- H. Oso bestelakoa da, hurrei zuzendutako telesail bat baita. Nire pertsonaia musulmana zen, eta aktore gisa tresnak eman zizkidan lan horrek.
- I. **Oso pozik nago lan horrekin. Baina antzerkia ikasten ari naiz, eta neure burua pantaila batean ikusten dudanean, autokritikoa izaten naiz: akatsak topatzen ditut.**

## GUTUN AZAL BATEN GARRANTZIA

*Aurten, pandemia dela eta, inoiz baino herritar gehiagok bozkatuko dute posta bidez. Donald Trumpek sistema horren aurka jo du, eta ohartarazi du «iruzurra» egiteko modua ematen duela..*

A. Elizegi Egilegor  
BERRIA 2020-10-08

AEBetako hauteskundeetan ere zeresana emango du COVID-19ak; izan ere, normalean baino jende gehiagok egingo du posta bidez bozkatzeko hautua. Aukera hori ez dute denek izango, estatu bakoitzak bere araudia baitu: Oregonen, esaterako, postaz bozkatzen da, aurrez aurre egiteko arrazoi bat aurkeztu ezean; aldiz, AEBetako erdialdeko eta mendebaldeko estatu gehienek aukera ematen diete hautesleei nahi duten moduan bozkatu ahal izateko, arrazoitu beharrik gabe; azkenik, hegoaldeko estatuetan justifikatu egin behar da posta bidez bozkatzea. Pandemia dela eta, duela lau urte baino estatu gehiagok erraztu dute posta bidez bozkatzea, eta, horietan, gobernua hautesle guztiei bidaliko dizkie azaroaren 3rako boto paperak, eskatu beharrik gabe. Hala egingo dute aurten Coloradok, Hawaii, Utah eta Washingtonek. Aldiz, Nebraskan postaz jasoko dituzte boto-paperak 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan. Horrek ez luke arazo berezirik sortu behar Donald Trump hautagai errepublikanoak sistemaren inguruko susmoak zabaldu izan ez balitu. «Posta bidezko botoa oso arriskutsua da. Iruzur handia dago horren atzean», esan zuen estatuburuak irail amaieran, Wisconsinen egindako agerraldi batean. Ez da lehen aldia halako salaketarik egiten dutena. 2016an ere egin zituzten iruzur salaketak, eta haietako hainbat ontzat eman zituen Hauteskunde Batzordeak. Baina 2018an Trumpek berak izendatutako batzorde berezi batek ondorioztatu zuen ez zegoela «iruzur sistematikorik», nahiz eta onartu iruzurra egitea «errazagoa» dela posta bidezko botoaren kasuan. Bestetik, Trumpek berak posta bidez bozkatu zuen Floridan, agintaldi erdiko hauteskundeetan, nahiz eta bere kasuan absentee vote deritzon sistema erabili zuen, hau da, hautesleak berak bere datuak emanez boto papera eskatzen duenean.

### Segurtasun neurriak

Estatuburuak bestelakorik esan arren, iruzurra egitea ez da horren erraza. Posta bidezko botoen kasuan, estatu bakoitzak ditu bere segurtasun neurriak. AEBetan ez dago nortasun agiri nazionalik, eta normalean bestelako identifikazio txartelak erabiltzen dira halakoetan. Baina, ikerketen arabera, 21 milioi herritar dira gobernua emandako identifikazio txartelik ez dutenak. Ondorioz, bestelako sistemak baliatu behar izaten dituzte bozkatzeko, esaterako boto papera daraman gutunazala sinaraziz. Identifikazio sistematik ez edukitzeak, baina, zaildu egiten du botoak berresteko lana, eta, gutxitan gertatzen bada ere, batzuetan hautesleei itzuli egiten diete boto papera, botoa atzera botatzeko arrazoi argirik eman gabe. AEBetako Hauteskunde Batzordearen esanetan, hautesleen %1 inguruk salatu zuten hori agintaldi erdiko bozetan, 2018an. Baina estatu zenbaitetan kopuruak handiagoak izan

ziren. Georgian, adibidez, herritarren %3k salatu zuten ezin izan zutela bozkatu. Gehienak gutxiengo etnikoetako kideak ziren. Baina hauteskunderen emaitzak jakiteko garaian izan dezake ondorio esanguratsurik posta bidezko botoa ugaritu izanak. Errepublikanoek ez bezala, demokratek kontu handiz jokatzeko eskatu diete herritarrei pandemia garaian, ahal dela etxean geratuz, distantziak errespetatuz eta abar. Hala, litekeena da hautesle demokratek posta bidezko botoaren alde egitea, kutsatze arriskuak gutxitzeko. Beraz, kontuan izanik posta bidezko botoen kontaketa luzatu egiten dela, besteak beste, iruzurrak saihesteko, gerta liteke hauteskunde gauean ematen diren behin-behineko emaitzek errepublikanoei abantaila ematea, demokraten aldeko botoetako asko postaz bidaliak izango direlako, eta lehen emaitza horiek hauteslekuetan egindako inkestetatik estrapolatzen direlako. Zer gerta liteke egoerarik txarrean? Bi hautagaien arteko tartea txikia bada, eta aurrez aurreko botoen zenbaketak garaipena Trumpi ematen badio, hark ontzat eman dezake emaitza, eta posta bidezko boto kontaketa iruzurtzat jo. Adituek ohartarazi dute: hautagai errepublikanoak Joe Biden presidentegai demokrataren garaipena onartu ezean, baliteke istiluak piztea AEBetan zehar. Eta Trumpek behin baino gehiagotan egin dio uko emaitzak onartuko dituela esateari.



# COMPRESIÓN DE TEXTOS ESCRITOS B2

## HOJA DE RESPUESTAS

### TAREA 1 – *Dena dago lotura.*

Angel Erroren testu honetan hainbat hitz kendu ditugu. Bete itzazu hutsuneak beheko hitzekin. Bi sobera daude. 12 item x 0,5

..... /6 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
I	D	B	J	N	F	M	L	C	H	O	E	K
√												

SOBERA: A, G

### TAREA 2 – *Bizi Txarran* asko ikasi dut gorputzarekin lan egiten.

Andrea Morari Berria egunkarian egindako elkarrizketa irakurriko duzu.

Parekatu galderak eta erantzunak. Erantzun bat sobera dago. 7 item x 1 puntu

..... /7 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7
I	B	C	F	G	A	H	D
√							

SOBERA: F

### TAREA 3 – *Gutun azal baten garrantzia.*

Elizegiren artikulua irakurri ondoren erantzun beheko galderak.

Aukera bakarra da zuzena.

7 item x 1 puntu

..... /7 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7
B	C	C	A	A	A	A	C
√							



## COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

# PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

### DATOS

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE  / OFICIAL

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **40 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
  - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
  - **primera escucha** del documento
  - **un minuto** para responder
  - **segunda escucha** del documento
  - **dos minutos** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar entregue **todas las hojas** utilizadas.

<b>PUNTUACIÓN TOTAL: ..... /20</b>
------------------------------------



## HOJA DE RESPUESTAS

**TAREA 1 Elkanoren bizitzari buruzko pasarte bat entzungo duzu. Erantzun galderak adibidean egiten den bezala. Aukera bakarra da zuzena. 7 x 1 = 7 puntu**

**...../7 puntu**

0. *Non jaio zen Juan Sebastian Elcano?*
- Gipuzkoako kostaldean jaio zen.**
  - Gipuzkoako hiriburuan jaio zen.
  - Bizkaiko kostaldeko herri batean jaio zen.
1. Elkanoren gurasoak...
- Diruz beste asko baino hobeto zeuden.
  - Ez ziren Gipuzkoan jaioak.
  - Ogibidez tabernariak ziren.
2. Elkanoren amak:
- Asko lagundu zien seme-alabei nahiz eta gazte alargundu.
  - Ez zuen etxean baizik lan egin eta ez zeukan ondasunik.
  - Seme-alaben laguntza behar izan zuen bizi ahal izateko.
3. Juan Sebastian Elkanok:
- Ama-hizkuntza baino ez zekien.
  - Ez zekien ongi idazten nahiz eta bi hizkuntza ezagutu.
  - Hiru hizkuntzatan moldatzen zela esan daiteke.
4. Itsasoan lan egiteko...
- eskola berezi batera joan zen hiru urtez.
  - esperientzia zen ikasteko modu bakarra.
  - ez zuen ezer berezirik egin familian ikasitakoaz gain.
5. Erregeak Oran hiria menderatu nahi zuen:
- Elkano izendatu zuen tropen jeneral.
  - Horretarako kardinal batek ipini zuen dirua.
  - Kristauen erasoak geldiarazteko.
6. Garai hartan, garaipen ororen ondoren:
- Beste garaipen baten bila jarraitzen zuten.
  - Garaileek ez zuten oso zuzen jokatzeko.
  - Ospakizunak izaten ziren nagusi.
7. Fernando Erregeak idatzitako gutunean:
- Afrika neguan konkistatzeko agintzen zien.
  - Atsedena hartu ondoren beste garaipen batzuk eskatzen zizkien.
  - Oran hiria menderatu ondoren etxera bueltatzeko agintzen zien.

0	1	2	3	4	5	6	7
A							
√							



<b>TAREA 2 Euskadi Irratiko albistegian entzundakoaren arabera, parekatu bi zutabeak. Bi aukera sobera daude.</b>	<b>7 item x 1 puntu.</b>	<b>...../7 puntu</b>
---	--------------------------	----------------------

**0. Haizeak.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoa.

2. Zuhaitzek.

3. Hego haizeak.

4. Etxeratze agindua.

5. Euskal erakundeek.

6. Alarma egoerak.

7. COVID-ak.

A. Auto-karabanak eta autoak guztiz estali dituzte.

B. Eguraldi epela ekarriko du.

C. Gipuzkoa izan da kaltetuena.

D. Hainbat neurri hartzea ahalbideratzen du.

E. Haize bolada bortitzak izan dira.

F. Haizeak teilatua eraman dio kultur etxeari.

**G. Makina bat herritan ez du lorik egiten utzi.**

H. Positiboak egunetik egunera gorantz.

I. Tabernak gauerdia baino lehen ixteko agindua ezarri dezakete.

J. Zenbait agintarik hori eskatzen dute.

<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
<b>G</b>							
√							



<b>TAREA 3 Euskadi Irratiko albistegian entzundakoaren arabera, ondorengo baieztapenak Egia ala Gezurra diren adierazi.</b>	<b>12 item x 0,5 = 6 puntu</b>	<b>...../6 puntu</b>
---	--------------------------------	----------------------

		<b>E/G</b>	
<b>0</b>	<b>Ezohikoa, berezia, baina hala ere arrakastatsua izaten ari da Durangoko azoka.</b>	<b>E</b>	√
1	Herritarrek huts egiten dutela garbi dago.		
2	Aurtengo azoka iazkoarekin alderatu dezakegu.		
3	Antolatzaileak gustura ez ezik eskertuta ere azaldu dira.		
4	Gerediaga elkarteko kudeatzaile baten hitzetan, jendeak uste baino hobeto erantzun du.		
5	Egindako ahaleginak ez du izan emaitza ona.		
6	Datorren urtean streaming-a eta online salmenta mantenduko diren aztertze dago.		
7	Elkarrekin egoteko aukera izan nahi dute etorkizunean.		
8	Lanean aritu direnak boluntarioak izan dira guztiak.		
9	Dagoeneko ez dago ezer erosteko aukerarik.		
10	Azokari amaiera emateko hainbat pertsonak parte hatu dute.		
11	Azokak 50 edizio baino gehiago izan ditu.		
12	Gauerditik aurrera ere izango da zerbait erosteko aukera.		

# COMPRESIÓN DE TEXTOS ORALES B2

## HOJA DE RESPUESTAS

**TAREA 1** Elkanoren bizitzari buruzko pasarte bat entzungo duzu. Erantzun galderak adibidean egiten den bezala. Aukera bakarra da zuzena. 7 x 1 = 7 puntu

...../7 puntu

0	1	2	3	4	5	6	7
A	A	A	C	B	B	B	B
√							

**TAREA 2** Euskadi Irratiko albistegian entzundakoaren arabera, parekatu bi zutabeak. Bi aukera sobera daude. 7 item x 1 puntu.

...../7 puntu

<b>0</b>	1	2	3	4	5	6	7
<b>G</b>	C	A	B	J	I	D	H
√							

SOBERA: E, F

**TAREA 3 Euskadi Irratiko albistegian entzundakoaren arabera, ondorengo baieztapenak Egia ala Gezurra diren adierazi.**

**12 item x 0,5 = 6 puntu**

**...../6 puntu**

		<b>E/G</b>	
<b>0</b>	<b>Ezohikoa, berezia, baina hala ere arrakastatsua izaten ari da Durangoko azoka.</b>	<b>E</b>	√
<b>1</b>	<b>Herritarrek huts egiten dutela garbi dago.</b>	<b>G</b>	
<b>2</b>	<b>Aurtengo azoka iazkoarekin alderatu dezakegu.</b>	<b>G</b>	
<b>3</b>	<b>Antolatzaileak gustura ez ezik eskertuta ere azaldu dira.</b>	<b>E</b>	
<b>4</b>	<b>Gerediaga elkarteko kudeatzaile baten hitzetan, jendeak uste baino hobeto erantzun du.</b>	<b>E</b>	
<b>5</b>	<b>Egindako ahaleginak ez du izan emaitza ona.</b>	<b>G</b>	
<b>6</b>	<b>Datorren urtean streaming-a eta online salmenta mantenduko diren aztertze dago.</b>	<b>E</b>	
<b>7</b>	<b>Elkarrekin egoteko aukera izan nahi dute etorkizunean.</b>	<b>E</b>	
<b>8</b>	<b>Lanean aritu direnak boluntarioak izan dira guztiak.</b>	<b>G</b>	
<b>9</b>	<b>Dagoeneko ez dago ezer erosteko aukerarik.</b>	<b>G</b>	
<b>10</b>	<b>Azokari amaiera emateko hainbat pertsonak parte hatu dute.</b>	<b>E</b>	
<b>11</b>	<b>Azokak 50 edizio baino gehiago izan ditu.</b>	<b>E</b>	
<b>12</b>	<b>Gauerditik aurrera ere izango da zerbait erosteko aukera.</b>	<b>G</b>	



## MEDIACIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

### DATOS

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE  / OFICIAL

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **25 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN MEDTE: ..... /10
-----------------------------

PUNTUACIÓN MEDTO: ..... /10
-----------------------------

PUNTUACIÓN TOTAL MEDIACIÓN: ..... /20
---------------------------------------





<b>MEDIAZIOA. Zure lagun bat euskara ikasten ari da eta zuk BBCko testu hau irakurri duzu. Eman ieazkiozu hainbat aholku. 120 hitz.</b>	<b>..... /10 puntu.</b>
---	-------------------------

Zer esango zenioke beste hizkuntza bat (euskara, adibidez) ikasten ari den lagun bati?

**1. Ez etsi hasi aurretik.**

Nahiz eta akats gramatikal batzuk egin hiztegia ikasteko ez duzu zailtasunik izango.

**2. Ikasten ikasi dezakezu.**

Asko saiatu behar duzu hizkuntza bat ikasteko. Ahalegina beharrezkoa da.

**3. Nondik hasi?**

Hasieran beharrezkoa da hitz batzuk ikastea ondoren oinarrizko agurrak ikasteko.

Ikasi nahi duzun hizkuntza hori egunero erabili behar duzu. Erabili bakarka ikasteko liburu edo ikastaro bat.

**4. Murgil zaitez hizkuntza horretan.**

Hizkuntza bat ikasteko modurik egokiena esfortzurik gabe egitea da. Hizkuntza bat ikasteko oso garrantzitsua da irakurtzea eta filmak ikustea.

**5. Gutxika erabili eta maiz.**

Egunean ordubete eskaintzen badiozu hizkuntza horri nahikoa izan daiteke aurrerapauso handiak egiteko.

**6. Zenbat eta gehiago hobeto.**

Hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea osasungarria da. Bi hizkuntza dakizkien pertsona batek errazago ikasiko du beste hizkuntza bat.

## MEDIACION B2

Reformular las ideas que aparecen en el texto para hacer entender al compañero/a qué tiene que hacer para aprender un idioma.

NO se deben repetir, literalmente, las palabras del texto original.



## PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

### DATOS

Apellidos: .....

Nombre: .....

DNI / NIE: .....

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE  / OFICIAL

Grupo / Profesor: .....

### INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **75 minutos**
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **las dos tareas**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

**PUNTUACIÓN TOTAL: ..... /20**



<b>TAREA 1</b>	<b>IRITZI ARTIKULUA.</b> Herriko aldizkarian zure iritizia azaldu behar duzu COVID tasa jaitsi eta uztailean ala abuztuan oportetara joateko egin beharreko gauzak eta hartu beharreko neurriak azalduz. 200 hitz.	.... /10 puntu
----------------	---	----------------

<b>TAREA 2</b>	<b>ESKUTITZ FORMALA.</b> Udalak ondorengo bandoa zabaldu du. Idatz iezaiozu alkateari eskutitz bat zure auzoko familia batentzat etxea alokatzeko dirua eskatuz. Familia horretako gutiek lana galdu dute pandemiaren erruz. Azken bi gauak kanpin-dendan pasatu dituzte. 130 hitz	.... /10 puntu
----------------	---	----------------

**BANDOA**

*Gaur egun bizi dugun egoera latza dela eta, Udalak diru-laguntzak eskainiko ditu etxebizitzak alokatu nahi dituzten familientzat. Eskaerak alkate jaunari zuzendu.*

## B2

### Tarea 1

Expresar y justificar tu opinión para mejorar la situación.

Plantear hipótesis sobre las distintas posibilidades.

Expresar la obligación y necesidad de tomar ciertas medidas.

Sugerir ciertas medidas para que no vuelva a ocurrir lo mismo.

### Tarea 2

Saludar y despedirse como corresponde.

Presentarse de manera formal.

Describir la situación de la familia.

Pedir ayuda y servicios para la familia.



## **PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B**

### **MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES**

**- Zure lagun batek arazoak ditu etxea txukun mantantzeko. Egunkarian irakurri duzun testu honetan hainbat baliabide ematen dira horretarako. Azal iezaiozu zure lagunari zer egin behar duen etxea txukun izateko eta bere bizimodua antolatzeko.**

#### **ETXEA TXUKUNTZEAZ HARATAGO BIZIMODUA ANTOLATZEKO METODOA**

Etxean pilatzen diren arropa, liburu eta gainerako objektuen artean garbiketa egin, eta benetan behar dugunarekin geratzen ikasteak eragina du gure bizimoduan. Txukuntze-prozesu hori egitea, ordea, ez da batere erraza izaten, eta zeregin horretan laguntzeko *Konmari* metodoa erabiltzea izan daiteke irtenbidea. Duela urte batzuk egin zen ezagun metodo hori: etxea nola garbitu eta gauzak nola antolatu azaltzen duen teknika. Marie Kondo japoniarra da sortzailea, ordenan aditua eta idazlea. *Konmari* metodoari buruzko liburua idatzi zuen 2011. urtean, eta argitaratu zuenetik 30 hizkuntzatarara itzuli dute. Horregatik da ospetsua munduko txoko guztietan.

Amaia Elias barne-diseinatzaile azkoitiarra japoniarrak Londresen emandako hiru eguneko ikastaro batean izan da. “Etxea antolatzekeo prozesua sortu du Mariek: gauza errazenetatik hasita, zailenetaraino aukeraketa bat egitea da helburua”. Amaiak berak egin du prozesua eta bere bezeroei ere horretan laguntzen die. Etxean sobera ditugun gauzak botatzeko, hainbat fasetako prozesua egiteko dio *Konmari* metodoak. Horretarako, objektu bakoitza esku artean dugunean, zorientasuna ematen digun edo ez galdetu behar diogu geure buruari.

Arroparen ostean, liburuen txanda da: “Ez dugu kopuru jakin bat gorde behar, zorientsu egiten gaituztenekin geratu behar dugu. Ondoren, etxeko paperena eta *komono* izena ematen zaion multzoarena egingo dugu. “Gainerako objektuak biltzen ditu *komono*ak: sukaldeko lapikoak edo komuneko makillajea, esaterako. Prozesua amaitzeko, artikulu sentimentalen artean aukeratu behar dugu: albumak, argazkiak eta guretzat balioa duten gauzak izaten dira. Zailena horixe da, nire ustez”.

### **PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)**

**- Gaztaroa izango duzu mintzagai. Gaztetan lagunak zure jokabidean izan zuten garrantziaz arituko zara. Hauen aholkuek zentzuz jokatzera bultzatzen zintuzten ala zentzugabekeriak egitera bultzatzen zintuzten. Kontatu gaztetan egindako bihurrikeriaren bat.**

### **COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)**

**a.- HIZKUNTZAK ESKOLAN** gaiari buruz arituko zarete. Zure ustez, umeak txiki-txikitatik eleaniztasunaren bidean murgildu behar ditugu, kognitiboki ikasteko momenturik onenean daudelako eta dena abantailak direlako. Zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi txikitan orduan eta argiagoak izango dira gure seme-alabak.

**b.- HIZKUNTZAK ESKOLAN** gaiari buruz arituko zarete. Zure ustez, umeek ama-hizkuntzan ikasi behar dute txikitan eta gero poliki-poliki beste hizkuntza batzuk sartu behar zaizkie. Ama hizkuntzan ikasitakoa hobeto geratzen da eta gurasoek ere laguntzeko aukera izango dute.